


Solas egiteko
Inpuiak

AUTOMOBILEK LODITZEN DUTE



edex



MIKEL



DANI



ELENA



JOSU



NEREA



Solas egiteko Ipuinak

Neska-mutikoen eskubidea dute Estatuak ahalik eta gehien ahalegindu daitezzen beraien eskubideak bermatzeko eta haurtzarorako onena dena pentsatuz har ditzaten erabakiak.



© 2005. Edizio honena:
Edex • www.edex.es • edex@edex.es



ISBN: 978-84-9726-755-7

Eskubide guztiak gordeta.

Debekatuta dago kopiatzea, osorik edo zati bat, edozein prozedura erabilita, aldez aurretik argitaratzaileen idatzizko baimena lortu gabe.

AUTOMOBILEK LODITZEN DUTE



TESTUA:

Gladys Herrera Patiño / Labayru

MARRAZKIA:


KAIA

KOLOREA:

María Terrazas eta Tote Azkona

IDEIA ETA ZUZENDARITZA:

Roberto Flores



*Dena hasi zen
“Ibilgailurik Gabeko
Eguna” zela eta egin
nuen zeregin bategatik.*

–Automobilak
gasolina behar du.

–Bizikletak, berriz, ez.

–Automobilak zarata
ateratzen du.

–Bizikletak, berriz, ez.



-Automobilak
loditzen du.

-Aizu, automobilak
jaten al dira ala?





-Ez dira jaten, baina
automobilean joaten
garenean ez gara
mugitzen eta hori dela
eta loditzen gara.
Idatzi hori!




*Idatzi nuen,
eta oso erabaki
garrantzitsua...*

*...hartu nuen: harrezkero bizikleta besterik ez nuen erabiliko.
Litekeena zen nire soberako kiloek automobilekin
zerikusia izatea.*



–Goazen, Mikel!
Igo zaitetz... berandu da!



-Zuek automobilez joan zaitezte.
Ni bizikletaz joango naiz.


-Ziur al zaude, Mikel?

-Bai, ama.



-Eup, txapeldun! Frantziako
Tourrerako prest?





*Nire gurasoak
harrituta geratu
ziren. Beti esaten
zidaten kirola egin
behar nuela eta
nik ez nien kasurik
egiten.*

*Nire lagunak ere harrituta zeuden,
eta arriskutsua iruditzen zitzaien.*





-Aizu, mugi zaitez! Harrapa zaitzadan nahi duzu ala?





–Galtzada ez da
umeentzat!



Bigarren astean ez nituen aintzat hartu gidarien hutsegiteak. Gidari batzuek oihu egiten zidaten...

..beste batzuek klaxona jotzen zuten, eta oso gutxi errespetatzen ninduten.

–Aizu, joan zaitez arinago!





Arratsalde batean eskolatik nentorrela, kamioi bat nire gaineratik asatzen sentitu nuen.

–Aizu, mutiko,
kontuz ibili!



*Ozta-ozta atera nintzen bizirik.
Baina hori izan zen txirrindulari
gisa ibili nintzen azken eguna:
hobe lodi hilda baino!*





–Asko sentitzen dut gertatutakoa.
Egoera desberdina izango litzateke
egunero erabiltzeko bide gorria
egongo balitz.





-Eta lor daiteke?

-Jakina! Beste herri batzuetan hala egiten dute eta oso ondo dabil.

-Eta norekin hitz egin beharko nuke hemen egin dadin?

-Alkatearekin edo?





*Gau hartan gutun bat
idatzi nion alkateari.*

*Kaleak ez du
automobilentzako
besterik izan behar.*

*Txirrindulariok eta
irristalariok ere badugu
kalea erabiltzeko
eskubidea!*



*Proposamen
didaktikoa*

Ipuinaren ostean, aliatuak bilatu



-Ama, aita... kalera irten naiteke?



Gure seme-alabaren galdera horri erantzutea ez da erraza izaten beti. Baimena eman nahi izaten diegu, baina batzuetan kostatu egiten zaigu. Arrazoi bategatik edo besteagatik, uste dugu kalea ez dela leku ona eta segurua adin txikikoentzat.

Beharbada horregatik, Erromako Umeen Kontseiluko kide den Federicok, 10 urteko umeak, erabaki zuen baimena hiriko alkateari eskatu behar ziola, zuzenean: "Etxetik irteteko eskubidea nahi dugu hiri honetan".



Agintariak izan daitezke umeentzako hiri atsegina lortzeko aliaturik garrantzitsuenak. Umeen hiria ekimenaren sustatzailea den Francesco Tonnuaren ustez, pediatrik dira ekimen honen beste aliaturik bat, umeen obesitatearen arazoarekin arduratuta daude eta. Uste dute gaixotasun hori ez dela soilik konpentsatuko elikadura ohiturak hobetuz, ez eskolako kirolarekin ere: behar-beharrezkoa da neskato eta mutikoak gehiago mugitzea, askeago jolastea eta eskolara oinez edo bizikletaz joatea.

Umeen beharrizanei erantzuten dien hiriaren aldeko aliatuen zerrendan, gurasoak ere badaude. Pentsatu zer egin dezakezun zure seme-alabek hiritik lagunekin paseatu, ibili eta gozatu ahal izan dezaten. Ia edozerk balio du, euren ondoan babesa ematen denbora guztian egoteak izan ezik.

Hitz egin zure seme-alabekin gai horri buruz, eta proposatu aliatu gehiago, pedalei eragiten jarraitzeko eta, horrela, ume guztientzako lekua izango duen hiria sortzeko.





***Eskubideak dira
garrantzitsuena***



Munduko haur guztiak eskubide

Gurasoek umeei laguntzen dietenean euren eskubide eta betebeharrak zeintzuk diren ulertzen eta gainontzeko pertsonen eskubideak errespetatzen, helduaro arduratsu baterako oinarriak ari dira jartzen. Konbentzioaren hitzaurrean jasota dagoenez, hori egitean, seme-alabak honelaxe bizitzeko prestatzen dituzte: "...Nazio Batuen Kartan aldarrikatutako idealen espirituan eta, zehatzago esateko, bakearen, duintasunaren, tolerantziaren, askatasunaren, berdintasunaren eta elkartasunaren espirituan".

UNICEF

1989ko azaroaren 20an, mundu osoko gobernuetako funtzionarioen, profesionalen, umeei babesa emateko erakundeen eta talde erlijioso ugariren arteko kontsulta eta negoziazioz osatutako hamar urteren ondoren, Nazio Batuen Batzar Nagusiak Umeen Eskubideei buruzko Konbentzioaren* testua onartu zuen, eta hurrengo urtean sartu zen indarrean.

Bertan, mundu osoko neska-mutilen eskubideen zerrenda deskribatzeaz gain, umeen garapenerako etapetan euren ongizatea bermatzeko arauak ezarri ziren. Gaur egun, Eskubideen Nazioarteko Trataturik berretsiena da munduan, herrialde bi baino ez baitira geratzen berau berresteko.

Konbentzioak derrigorrezko izaera du Estatuetan, eta horregatik da hain garrantzitsua. Izan ere, berau berretsi duten gobernuak euren lege, politika eta praktikak Konbentzioko arauen arabera harmonizatu behar dituzte, arau horiek egia bihurtu behar dituzte, eta eskubide horien betearazpena oztopatu edo baliogabetu dezakeen neurririk ezin dute hartu.

Konbentzioak umeei buruzko ikuspuntu berri bat ematen du. Umeak jada ez dira gurasoen jabetzakoak ez karitateko obra baten onuradun babesgabeak. Gizakiak dira, eta euren eskubideak dituzte. Konbentzioaren ikuspuntuaren arabera, umea pertsona da, eta familiako eta komunitateko kidea, eskubide eta erantzukizunekin.

* Konbentzioaren arabera, 18 urtetik beherako pertsona guztiak dira "neskatoak" edo "mutikoak", baldin eta tokian tokiko legeek beherago jartzen ez badute adin-txikitasuna.




berdinak dituzten pertsonak dira

Konbentzioak barne hartzen dituen giza eskubide guztiak lau sail zabaletan bildu daitezke:

- Bizirauteko eskubidea: bizitzarako eskubidea eta oinarrizko beharrianak aseta izateko eskubidea. Horien artean daude bizitza maila egokia, ostatua, elikadura eta mediku zerbitzuak jasotzeko eskubidea.
- Garapenerako eskubidea: neska-mutikoen potentzialik handiena lortzeko, behar duten guztia lortu ahal izatea. Horren adibideak dira, besteak beste, heziketa, jolas eta aisialdirako eskubidea, jarduera kulturaletarako eta informazioa jasotzeko eskubidea, eta pentsamendu, kontzientzia zein erlijio askatasunerako eskubidea.
- Babeserako eskubidea: neska-mutikoak gehiegikeria, bazterketa eta esplotazio mota guztietatik babestu behar dira. Horien artean daude, besteak beste, errefuxiatutako neska-mutikoei emandako arreta berezia, torturak, justizia sistema kriminalaren gehiegikeriak, gatazka armatuetan parte hartzea, umeen lana, drogen kontsumoa eta esplotazio sexuala.
- Partaidetzarako eskubidea: neska-mutikoek zeregin aktiboa izan dezaten euren komunitate eta nazioetan. Eskubide horien artean daude iritzia emateko askatasuna eta helburu baketsuekin elkartzeko askatasuna.

Konbentzioan jasotakoa ulertzeko, bertako 54 artikuluen edukia hamar enuntziatutan bildu dugu, eta enuntziatu horiek bilduma hau osatzen duten beste hainbeste liburukitan garatu ditugu.



Umeen Eskubideen Konbentzioa,



BERDINTASUNA. Beste umeen eskubide berak dituzu, eta arreta berezia jaso behar duzu ezintasunen bat badaukazu.

OSASUNA. Gaixotasunak prebenitzeko eskubidea duzu eta, behar duzunean, medikuaren arreta jasotzeko eskubidea.



ONGIZATEA. Eskubidea duzu zure gurasoek gizarte segurantza izateko eta zure garapena bermatzeko eta bizimodu duina emateko behar dituzten baliabideak izateko.



HEZKUNTZA. Zure nortasuna eta gaitasunak garatuko dituen eta bizikidetzarako prestatuko zaituen heziketa jasotzeko eskubidea duzu.



BABESA. Intimitaterako eskubidea duzu, ez dizkizute gorputza eta sentimenduak zauritu behar, ez duzu zertan lanik egin, ez zaituzte errekrutatu edo esplotatuko.

Solas Egiteko hamar Ipuinetan

NORTASUNA. Izena izateko eta herrialde batekoa izateko eskubidea duzu, zure hizkuntza hitz egiteko eskubidea duzu eta zure ideia, sinesmen eta erlijioaren arabera bizitzeko eskubidea duzu.

ESATEN
DUTENA
ESATEN
DUTELA



AUTOMOBILEK
LODITZEN
DUTE



LEHENENGO, HAURRAK. Eskubidea duzu estatua ahal denik eta gehien ahalegindu dadin zure eskubideak bermatzeko eta estatuak zuretzat onena dena pentsatuz har ditzan erabakiak.

PARTE-HARTZEA. Informazio egokia hartzeko eskubidea duzu, eta zure iritzia eman dezakezu, eta iritzia hori kontuan hartu beharrekoa da zuri dagozkizun arloetan.

KOMUNAREN
HONDAMENA



OSO
FAMILIA
NORMALA



FAMILIA. Maite eta bideratuko zaituen familia izateko eskubidea duzu, eta familia horretatik banandua ez izateko eskubidea duzu, baldin eta zure ongizaterako ez bada.

JOLASA. Jolasteko eta jarduera artistiko eta kulturalak egiteko denbora eta leku egokiak izateko eskubidea duzu.

HARAT-HONAT
KORRIKA



www.solasegitekoipuina.net www.solasegitekoipuina.net
www.solasegitekoipuina.net www.solasegitekoipuina.net
www.solasegitekoipuina.net www.solasegitekoipuina.net
www.solasegitekoipuina.net www.solasegitekoipuina.net
www.solasegitekoipuina.net www.solasegitekoipuina.net
www.solasegitekoipuina.net www.solasegitekoipuina.net
www.solasegitekoipuina.net www.solasegitekoipuina.net
www.solasegitekoipuina.net www.solasegitekoipuina.net
www.solasegitekoipuina.net www.solasegitekoipuina.net
www.solasegitekoipuina.net www.solasegitekoipuina.net
www.solasegitekoipuina.net www.solasegitekoipuina.net
www.solasegitekoipuina.net www.solasegitekoipuina.net
www.solasegitekoipuina.net www.solasegitekoipuina.net
www.solasegitekoipuina.net www.solasegitekoipuina.net
www.solasegitekoipuina.net www.solasegitekoipuina.net
www.solasegitekoipuina.net www.solasegitekoipuina.net
www.solasegitekoipuina.net www.solasegitekoipuina.net
www.solasegitekoipuina.net www.solasegitekoipuina.net
www.solasegitekoipuina.net www.solasegitekoipuina.net
www.solasegitekoipuina.net www.solasegitekoipuina.net
www.solasegitekoipuina.net www.solasegitekoipuina.net
www.solasegitekoipuina.net www.solasegitekoipuina.net
www.solasegitekoipuina.net www.solasegitekoipuina.net
www.solasegitekoipuina.net www.solasegitekoipuina.net



et www.solasegitekoipuina.net www.solasegitekoipuina
www.solasegitekoipuina.net www.solasegitekoipuina
www.solasegitekoipuina.net www.solasegitekoipuina
www.solasegitekoipuina.net www.solasegitekoipuina
www.solasegitekoipuina.net www.solasegitekoipuina
www.solasegitekoipuina.net www.solasegitekoipuina
net www.solasegitekoipuina.net www.solasegitekoipuina
www.solasegitekoipuina.net www.solasegitekoipuina
www.solasegitekoipuina.net www.solasegitekoipuina
www.solasegitekoipuina.net www.solasegitekoipuina
www.solasegitekoipuina.net www.solasegitekoipuina
www.solasegitekoipuina.net www.solasegitekoipuina
net www.solasegitekoipuina.net www.solasegitekoipuina
www.solasegitekoipuina.net www.solasegitekoipuina
www.solasegitekoipuina.net www.solasegitekoipuina
www.solasegitekoipuina.net www.solasegitekoipuina
www.solasegitekoipuina.net www.solasegitekoipuina
www.solasegitekoipuina.net www.solasegitekoipuina
net www.solasegitekoipuina.net www.solasegitekoipuina
www.solasegitekoipuina.net www.solasegitekoipuina
www.solasegitekoipuina.net www.solasegitekoipuina
www.solasegitekoipuina.net www.solasegitekoipuina
net www.solasegitekoipuina.net www.solasegitekoipuina





Autoek azkarrago eramaten gaituzte. Nora? Lanera edo eskolara, baina baita kutsatzera eta loditzera ere, autoa gehiegi erabiltzen duten pertsonekin gertatzen den moduan. Mikelek bizikleta erabiltzea erabaki du, baina badirudi hiria ez dagoela pentsatuta neska-mutikoentzat.

Solas Egiteko Ipuinak honetan, *Osasunkume* programako pertsonaien istorioen bitartez, *Umeen Eskubideei buruzko Konbentzioa* hurbiltzen da 5 urtetik gorakoentzako seme-alabak dituzten familietara.

Bildumako liburuak:

- *Lagunen eskua*
- *Hitzez hitz*
- *Hainbat hobe norbaitekin*
- *Letratxoa*
- *Korrika egin eta kontatzea*
- *Esaten dutena esaten dutela*
- *Automobilek loditzen dute*
- *Komunaren hondamena*
- *Oso familia normala*
- *Harat-honat korrika*

